

Eszena 99 Jaialdiak dantza ekarriko du Nafarroara datorren apiriletik aurrera


Nafarroako Gobernuak haur eta gazteentzako emanaldiak antolatu ditu aurten

Edurne Elizondo / Iruñea

Hamaika konpainiak parte hartuko dute Eszena 99 Dantza Jaialdian, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Antzerki Eskolaren eta Zizur Nagusiko Udalarren laguntzaz antolatuta. Aurtengoa hirugarren ekitaldia izanen da, eta hainbat berrikuntza ekarriko ditu, tartean haur eta gazteentzako propio antolatutako dantza ikuskizun eta lantegiak.

NAFARROAKO Gobernuak Eszena Dantza Jaialdiaren beste ekitaldi bat antolatu du, Nafarroako Antzerki Eskolaren (NAE) eta Zizur Nagusiko Udalarren laguntzaz. Datorren apirilaren 16tik maiatzaren 20ra bitartean izanen dira emankizunak, Iruñean eta Zizur Nagusian, eta hamaika konpainiak parte hartuko dute. Aurten, aurreneko aldiz, Euskal Herriko eta Espainiako hainbat autonomia erkidegotako dantzariekin batera, Argentinako eta Frantziako profesionalak ariko dira jaialdian.

Beste berrikuntza batzuk ere izango dira aurtengo Eszena Dantza Jaialdian, Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusiko buru Tomas Yerrok atzo Eszena 99 aurkezteko egin agerraldian jakinarazi zuen. Batetik, Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, Iruñeko karriketan aurkeztuko dituzte dantzariak euren ikuskizunak, apirila-



ARTXIBOKOA

Miarritzeko Baletako bi dantzari, *Ouverture Cubaine* ikuskizunean.

ren 29an, eta, bestetik, haur eta gazteentzako propio prestatutako emanaldiak eta dantza lantegiak antolatu ditu Nafarroako Gobernuak.

Dantzaren jarraitzaile kopurua igo egin da

Dantzaren egungo ildoak erakutsiz eta kalitateko ikuskizunak aurkeztuz, Eszena Dantza Jaialdiaren helburua arte diziiplina horrek gure herrialdean duen jarraitzaile kopurua urtetik urtera igo tzea dela azpimarratu zuen Tomas Yerrok atzoko agerraldian.

Espainiako Balet Berriak emanen dio hasiera Eszena 99 Dantza Jaialdiari, apirilaren 16an. *Flamenco directo* ikuskizun berria aurkeztuko

du konpainiak, Iruñean, Gaiarre antzokian. Apirilaren 20an eta 21ean Chicos Mambo Show taldea ariko da, Gaiarren bertan. Apirilaren 23 eta 24an, berriz, Zizur Nagusiko kultur etxean General Electrica taldearen *Night* ikuskizuna izanen da.

Apirilaren 28an, dantza, musika eta bideoa nahastuko dira Nafarroako Antzerki Eskolaren egoitzan, Sol Pico konpainiaren *E.N.D. (Esto No Danza)* ikuskizunarekin. Biharamunean, Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute Iruñean, eta hiriko karriketan ariko dira egun osoan dantzariak; besteak beste, Frantziako Erre que Erre, Asociacion Os Bambas da Copeira eta Les Saltindances taldeak ariko dira.

Maiatzaren 1ean eta 2an, *Ana y el arco de colores* aurkeztuko du Aracaladanza taldeak Zizur Nagusian, eta, hilaren 5ean, *Blanc d'Ombra (Recordant Camille Claudel)* Marta Carrasco dantzariak. Hilaren 7 eta 8an, berriz, Nafarroako Tempomobile konpainiak *A way* lana aurkeztuko du. Jon Munduate dantzaria NAEan izanen da, maiatzaren 12an, *Lucia con zeta* obrarekin, eta, 16an, Miarritzeko Baleta Gaiarren izanen da. Gelabert-Azzopardi konpainiak eta Argentinako Quat'Zarts-Catherine Berbessou taldeak emango dituzte aurtengo azken ikuskizunak.

Bilbo eta Txorierri taldeak ariko dira igandean Bertsolari Gazteen BBK Sariketako finalean

■ Atzoko eta herenegungo saioen ostein, amaitu da sailkapen fasea

Erredakzioa / Bilbo

HELDU den igandean izango da Bertsolari Gazteen VII. BBK Sariketako saio nagusia, Bilboko Kafe-Antzokian, eguerdian, eta hor ariko dira Bilbo eta Txorierri taldeak, sailkapen saioetako multzo bakoitzeko irabazleak, alegia.

Bermeoko eta Derioko institutueta izan dira sailkapen faseko azken bi saioak. Busturia eta Arratia taldeak aritu ziren Bermeon, eta Txorierri eta Durango taldeak Derion. Busturia eta Txorierri taldeak izan ziren irabazleak saio bakoitzean. Ondorioz, Bilbo, Busturia eta Arratia taldeen multzoan, Bilbok bi puntu lortu ditu, bi saioetatik biak irabazi baititu, eta gauza bera gertatu da beste multzoan Txorierri taldearekin. Durango eta Lea-Artibai izan dira azken multzo horretako beste bi taldeak.

Sariketa honetan bertsolariak taldeka parte hartzen dute, eta talde bakoitzak Bizkaiko eskualde bat ordezkatzen du. Bi adin mailatan banatuta aritzen dira bertsolariak: 18 urte artekoak maila batean, eta 19 urtetik 23ra artekoak bestean.

III. Akordeoi Jaialdia izango da larunbat gauean Ordiziako Herri Antzokian

■ Hainbat musika estiloko piezak jo beharko dituzte parte hartzaileak

Erredakzioa / Donostia

AKORDEOIA musika tresna nagusi duten taldeei zuzendurik dago Ordiziako Akordeoi Jaialdia, adin mugarik gabe, eta aurtengo jaialdia Ordiziako Herri Antzokian izango da etzi, larunbata, gaueko 21:45etan. Larrun-Arri elkarteak antolatu ohi du jaialdia, Gipuzkoako Akordeoi Federazioaren laguntzaz.

Lehengo urteko emaitza onak ikusita, Larrun-Arri elkarteak sariak handitzea erabaki du. Hala, irabazleak 300.000 pezeta (12.000 libera inguru), txapela, garaikurra eta Pigni markako akordeoia erosteko 100.000 pezetako txartela jasoko du. Bigarren saria 150.000 pezetakoa da, eta hirugarren, laugarren eta bosgarren saridunek 50na mila pezeta eskuratuko dituzte.

Lehiakideek hainbat estiloko programa jo beharko dute, besteak beste fandangoa, folka, rocka, tangoa, rumba eta balsa, eta aukera libreko beste lau pieza.

Salvador Olazabal (Irun), Nerea Labaien (Berastegi), Jokin Goenaga (Lasarte), Philippe Ezkurra (Urruña) eta Beñat Mitxelena (Arantza) ariko dira Ordiziako III. Akordeoi Jaialdian, beste hainbat musikarirekin batera.